



## LEDIPASVIR/SOFOSBUVIR (Harvoni®)

### Zer da eta zertarako erabiltzen da?

Ledipasvir (LDV) eta sofosbuvir (SOF) arteko konbinazioa da **Harvoni®** eta C hepatitis kronikoa daukaten paziente helduen tratamenduan erabiltzen da (1, 3, 4 genotipoetan).

### Nola kontserbatu behar dira?

**HARVONI®**: giro-temperaturan kontserbatu behar da (<25°C), jatorrizko ontzian utzita.

### Nola hartzen da?

**HARVONI®**: egunero konprimitu bat hartzea da gomendioa, 90 mg/140 mg (LDV/SOF), jakiekin batera edo jakirik gabe.

Zapore mingotzekoa denez, konprimitu ez mamurtzea edo birrintzea da gomendioa.

Konprimitu hartu eta 5 orduko tarte igaro aurretik botaka eginez gero, beste konprimitu bat hartu beharra dago. 5 ordutik gora igaro ostean eginez gero, ez da beste konprimiturik hartu behar.

### Zer egin behar da dosi bat hartzea ahaztuz gero?

#### **HARVONI®**:

- 18 ordutik behera pasatu badira: HARVONI®-en dosia albait arinen hartu eta hurrengo dosia ohiko orduan hartu behar da.
- 18 ordutik gora pasatu badira, HARVONI®-en dosi hori hartu barik utzi eta hurrengo dosia ohiko orduan hartu behar da.

Ez hartu inoiz dosi bikoitzik ahaztutakoa konpentsatzeko.

### Zeintzuk dira tratamenduan zehar ager daitezkeen albo-ondorio ohikoenak?

Ez du esan nahi agertuko direnik, baina medikuari edo farmazialariari jakinarazi behar zaio ezer nabarituz gero:

**HARVONI®**: zefalea eta nekea dira albo-ondorio ohikoenak.

### ¿Qué es y para qué se utiliza?

**Harvoni®** es una combinación entre ledipasvir (LDV) y sofosbuvir (SOF), que está indicado para el tratamiento de pacientes adultos con hepatitis C crónica (genotipos 1, 3, 4).

### ¿Cómo se debe conservar?

**HARVONI®**: Conservar a temperatura ambiente (<25°C). Conservar en el envase original.

### ¿Cómo se administra?

**HARVONI®**: La dosis recomendada es un comprimido de 90 mg/140 mg (LDV/SOF) una vez al día, acompañado o no de alimentos.

Debido a su sabor amargo, se recomienda no masticar ni machacar el comprimido.

Si vomita en menos de 5 horas después de la administración, debe tomar un comprimido adicional. Si vomita 5 horas después de la administración, no hace falta ningún comprimido adicional.

### ¿Qué hacer si se olvida una dosis?

**HARVONI®**: en caso de olvido de una dosis:

- Si han pasado menos de 18 horas: tomar la dosis de HARVONI® lo antes posible y después tomar la siguiente dosis a la hora habitual.
- Si han pasado más de 18 horas: no tomar esa dosis de HARVONI® y tomar la siguiente a la hora habitual.

Nunca tome una dosis doble para compensar un olvido.

### ¿Cuáles son los efectos adversos más frecuentes que pueden aparecer durante el tratamiento?

No significa que vaya a padecerlos todos, pero debe conocerlos para informar a su médico o farmacéutico si los padece:

**HARVONI®**: Las reacciones adversas más frecuentes son cefalea y fatiga.



## Oharra:

Zenbait medikamentuk eragina eduki dezakete tratamendu honetan. **Beraz, hartzen ari zaren medikamentu, osagarri dietetiko edo produktu natural guztien berri eman behar diozu medikuari edo farmazialariari.**

Harvoni hardunaldian eta bularra emate-garaian hartzeari dagokionez, ez dago datu handirik. Hala ere, egokiagoa da horrelakoetan ez erabiltzea, badaezpada ere; horregatik hardun ez geratzeko neurriak hartzea da gomendioa.

## AHOLKUAK

Beste medikamenturen bat hartzen ari bazara edo duela gutxi hartu baduzu, mediku edo farmazialariari jakinarazi, errezeptarik gabekoak badira ere. Alkoholdun edariekin eragina izan dezakete zenbait medikamentuekin batera hartuta; ondorio nahigabeak edo arriskutsuak ere sorrarazi ditzakete.

Urgentziako egoera edo kirurgia arin baten aurrean (dentista, adibidez), hartzen ari zaren medikamentu guztien berri eman behar duzu.

Larialdi Zerbitzura joan edo ospitaleratu beharrean egonez gero, aldean eroan behar duzu medikazioa. Garrantzitsua da ohiko moduan hartzea.

Umeek ez ikusteko eta ez hartzeko moduan gorde behar dituzu medikamentuak. Ez da medikamentua hartu behar iraungitze-data gaindituz gero (ontzian adierazitako hilabetearen azken egunetik aurrera). Medikamentuak soberan badituzu, ez gorde etxeen. Itzuli mesedez Farmazia Zerbitzuari.

## Observación:

Ciertos medicamentos pueden interferir con este tratamiento. **Comunique a su médico o farmacéutico todos los medicamentos, suplementos dietéticos o productos naturales que esté tomando.**

No hay datos o estos son limitados relativos al uso de Harvoni en el embarazo y la lactancia. Como medida de precaución, es preferible evitar su uso en estas situaciones, y se recomienda tomar precauciones para evitar el riesgo de embarazo.

## CONSEJOS

Informe a su médico o farmacéutico si está tomando o ha tomado recientemente otros medicamentos, incluso los adquiridos sin receta. Las bebidas alcohólicas pueden interaccionar con algunos medicamentos y producir efectos no deseados o incluso peligrosos.

En cualquier situación de urgencia o cirugía leve (por ejemplo el dentista) es necesario informar al médico de todos los medicamentos que está tomando.

Si acude a un servicio de urgencias o ha de ser ingresado en un hospital, lleve consigo la medicación. Es importante que la siga tomando de forma regular.

Mantenga sus medicamentos fuera de la vista y del alcance de los niños. No utilice su medicamento una vez superada su fecha de caducidad (el último día del mes indicado en el envase). Si le sobran medicamentos, no los guarde en su casa. Devuélvalos por favor en el servicio de farmacia.